

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Maribel Gorostizagoiza Etxezarraga

*Areatza,
Bizkaia (1940)*

Aurkibidea



Biografia



Asterri auzoko Barazar baserriko alaba da Maribel. Beraien jaiotetxea herriz Zeanuri den arren, Areatzan egin izan dute bizimodua hurbiltasuna dela-eta, eta berbeta ere bertakoa du. Aita Zeanurikoa zuen eta ama Arantzazukoa. Gazterik hasi zen baserriko beharretan eta Areatzan etxerik etxe esnea saltzen. Bilboko etxe batera neskame lanetan joan zen eta bertan ikasi zuen josten bertako moja batzuekin. Kalera ezkondu zen eta hiru seme-alaben ama da. Aintzinako bizimoduari, ohiturei eta sinismenei buruz aritu da elkarriketan, besteak beste.

Zintak

AZA-001

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2012-10-10
- **Iraupena:** 76 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Unamuno, Arianne

AZA-002

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Goiria Mendiolea, Nerea
- **Data:** 2012-10-10
- **Iraupena:** 53 min
- **Euskarria:** Bideo digitala

Pasarteak

1. Arratiako oraingo hizkera nahasia

- **Erref:** AZA-001/002
- **Iraupena:** 0:00:35. **Hasi:** 00:00:31. **Bukatu:** 00:01:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskalkia, herri hizkerak, euskara batua

Laburpena:

<p>Darabilten hizkera etxekoa eta batuaren arteko nahastea dela dio.</p>

Transkripzioa

Beitu, guk... gure berbetie da geure baserrikoa, lehenaukoa. Ta gero, beti batzen dozu berban bat oingoa edo; sartzen dozu, ba, bitartean, ezta? Baia badaoz berba asko Arratien galdu direzanak; ez direz erabilten. Ze oin apurtxu bat Arratien ein da euskerea nahastu. Batua ez dakigu ta lehengoa ez dotsegu eretxiten berba itea eta pasetan dogu “eta hori”. “Eta hori” zer da? “Hori zubiori. Eta hori”. Zer da hori? Ezebez.

2. Bilbon jaiotakoa

- **Erref:** AZA-001/006
- **Iraupena:** 0:01:44. **Hasi:** 00:06:06. **Bukatu:** 00:07:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa

Laburpena:

<p>Gerra bukatu zen egunaren urteurrenean jaio zen, Bilbon, umeak jaiotzeko zentru batean.</p>

Transkripzioa

Nire jaio nintzen egune izen zen “El día de la Victoria” gerrea amaituko zan onomastikea hurrengo urtean. Ta eskolan be jai emoten euren umeari. Ta ni jaio nintzen Bilbon “por circunstancias”. Neuken, bueno, nire aite-ta izen zien hamaika neba-arreba eta bat, bi egozan Bilbon ezkondu eta ni baino zahartxoau deuket lehengusu bet. Ta nire ama, gerra ostean ez egoan tranbirik eta autorik eta patxadazko gauzerik eta, ba, joan zirean, ba, koiñetea ezetuten eta umea ezetuten. Ta niri akordeu jaten jaio ein behar dotala. Ta oin dan lekuen e, Hotel Indautxu, han egoan “La mujer y el niño”, han leku bet, ba, andrak eukiten zituzenak, eukiten eurenak... umeak jaioteko leku bet. Maternidadean egoten zan bat, ospitalean beste bat, eta gero hor egoten zan “La Mujer y El Niño”. Eukiten euren andrak iguala bat pagetan euren, ba, ernari egozanak eta gero, han, ba, eukiten euren umea jaioten. Ta ni han jaio nintzen, 1 de abril. Ta mojea, mojak eroaiten eurien zera, ba, zerori, etxe hori, eta mojeak esan otsen: “pues vas a ser la primera... tienes una canastilla de recién nacido, porque eres la única que estás en parto”. Ta, bueno, jaio nintzen ta nire ama pozik “jo, una canastilla, una canastilla, bitu”, zelango gauzek egongo ziren han barruen, ez? Ta jaio nintzen orden [seguru] joan ei jakon mojea ta esan ei otsen: “pues te ha tomáu la delantera otra, a la que le van a poner el nombre de María Victoria”, eta ya me estrellé. Ordurik hona ya geratu nintzen kanastilla barik... Holan joan da nire bizimodue.

3. Lurrak ematen zuenetik bizi

- **Erref:** AZA-001/008
- **Iraupena:** 0:01:35. **Hasi:** 00:08:52. **Bukatu:** 00:10:27
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua

Laburpena:

Lurrak ematen zuenetik bizi zen jendea. Esnea saltzen zuten eta handik ateratako diruarekin lortzen zuten etxean eduki ez eta behar zituztenak. Ortua, artoa, babak... denetarik zeukaten. Amamak zaintzen zituen umeak, baita sua ere.

4. Gizonaren mendean ez bizitzeko aukera

- **Erref:** AZA-001/009
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 00:10:27. **Bukatu:** 00:11:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Gizonek izaten zuten agintea baina bere amak aurre egiten zion egoerari, injustizia moduan bizi baitzuen.

5. Baserriko lanak urtaroka

- **Erref:** AZA-001/011
- **Iraupena:** 0:02:55. **Hasi:** 00:12:25. **Bukatu:** 00:15:20
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak

Laburpena:

Eskolara joan, umeren bat zaindu eta nekazal-lanen bat egin behar izaten zutenez, ez zuten jolasten. Urte osoko baserriko lanak aipatzen ditu.

6. Emakumeen neguko lanak

- **Erref:** AZA-001/012
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:15:20. **Bukatu:** 00:16:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak

Laburpena:

Emakumeen neguko lanak. Txapinak egitea, artilea goruetan, etxeko arropak josi...

7. Eskolan dena erdaraz

- **Erref:** AZA-001/013
- **Iraupena:** 0:01:01. **Hasi:** 00:16:48. **Bukatu:** 00:17:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Euskararen egoera

Laburpena:

Hamabi urtera arte ibili zen eskolan. Baserri-eskola bazen ere, dena erdaraz irakasten zen bertan. Igandeetan mezatara joaten ziren.

8. Karramarroak batu, egosi eta jan

- **Erref:** AZA-001/014
- **Iraupena:** 0:01:37. **Hasi:** 00:17:49. **Bukatu:** 00:19:26
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak
- Aisia » Mendia eta hondartza » Errekako arrantza eta ehiza

Laburpena:

Auzoko umeak karramarroak batzera joaten ziren erreka eta ondoren basoan leku garbi bat topatu, karramarroak egosi eta jan egiten zituzten. Udaberrian txori bila ibiltzen ziren.

9. Neska-mutilen arteko harremanak gaztaroan

- **Erref:** AZA-001/015
- **Iraupena:** 0:03:05. **Hasi:** 00:19:26. **Bukatu:** 00:22:31
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua

Laburpena:

Herrira hamazazpi urte ingururekin jeisten hasi ziren. Mutilekin harremantzen hasi ziren. Neskei mutilekin kontuz ibiltzeko esaten zieten etxean. Sexu-harremanei buruz abereei begira ikasi zuten. Neska eta mutilen arteko desberdintasuna ligatzerakoan.

10. Neskame Bilbora, beste kultura bat jasotzeko

- **Erref:** AZA-001/016
- **Iraupena:** 0:03:12. **Hasi:** 00:22:31. **Bukatu:** 00:25:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

Baserrian etxe inguruko kultura ikasten zen. Beste zerbait ikastekotan joan zen neskame aberatsen etxera. Zer lan egiten zituen kontatzen du. Iluntzetan josten ikastera joaten zen mojetara.

11. Neskameen eta aberatsen bizimodua Bilbon

- **Erref:** AZA-001/017
- **Iraupena:** 0:02:40. **Hasi:** 00:25:43. **Bukatu:** 00:28:23
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana

Laburpena:

Bilbon neskame egon zen etxean liburutegi handi bat zegoen eta astia izaten zuenez, hango liburuak irakurtzen zituen. Etxe hartara plantxa egitera eta etxekoak orraztera profesionalak etortzen ziren. Arropatan nabaritu egiten zen zein ziren aberatsak eta zein ez. Bilboko auzoak deskribatzen du.

12. Horacio Etxebarrieta eta senideak

- **Erref:** AZA-001/018
- **Iraupena:** 0:04:30. **Hasi:** 00:28:23. **Bukatu:** 00:32:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Kanpoko jendearekin harremana

Laburpena:

Horacio Etxebarrietari buruzkoak. Haren bi seme Maribel neskame egon zeneko etxeko bi alabarekin zeuden ezkontuta. Haiei buruzko kontuak. Neskame ibili arren, inor baino hobeto bizi zirela dio.

13. Jurnal handia neskame lanengatik

- **Erref:** AZA-001/019
- **Iraupena:** 0:02:16. **Hasi:** 00:32:53. **Bukatu:** 00:35:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Herria, azpiegitura » Herri-antolaketa » Merkataritza, dendak (kokapena)

Laburpena:

Neskame izatetik etxeratu zenean, nobioa topatu eta ezkondu egin zen. Seirehun pezetako jorna zeukan neskame lanagatik. "Galerías Preciados" eta "El Corte Inglés" ireki aurretik, Zazpi kaleetan jende arruntarentzako arropa saltzen zuten.

14. Gizonen mendean ez egoteko modua

- **Erref:** AZA-001/020
- **Iraupena:** 0:02:28. **Hasi:** 00:35:09. **Bukatu:** 00:37:37

- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko giroa
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Andra-gizonen arteko harremanak. Nola moldatzen zen gizonen mendean ez egoteko.

15. Klausurako mojen ostatura bizitzera

- **Erref:** AZA-001/021
- **Iraupena:** 0:05:34. **Hasi:** 00:37:37. **Bukatu:** 00:43:11
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizarekin lotutako pertsonak

Laburpena:

Gizonaren jaiotetxera ezkondu zen, baina handik irten beharra izan zuten. Gero beste etxe batera joan ziren bizitzera; etxe horren istorioa kontatzen du. Klausurako mojen ostatura zen.

16. Argi txikia eta ura etxean

- **Erref:** AZA-001/022
- **Iraupena:** 0:04:28. **Hasi:** 00:43:11. **Bukatu:** 00:47:39
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

Zeanuriko Barazar baserrian jaiotakoa da, Asterri auzunean. Argindarra herriko errotatik jasotzen zuten. Argia txikia zenez, karburoa erabiltzen zen eta haren ondorioz, etxe asko erretzen ziren. Komuna bazeukaten eta ura bertan ere bai. Abereak ura edatera eramaten zituzten eta neguan itoginetatik batzen zuten ura ematen zieten.

17. Ikuiluko askan bainatzen ahizpak elkarrekin

- **Erref:** AZA-001/023
- **Iraupena:** 0:02:38. **Hasi:** 00:47:39. **Bukatu:** 00:50:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala

Laburpena:

Ikuiluko aska bat garbitu eta hantxe bainatzen ziren, ahizpak elkar garbituz. Txinbo xaboa egosi egiten zuten eta burua garbitzeko erosoagoa izaten zen. Azkeneko urari ospina botatzen zioten, ileko korapiloak askatzeko. Beste etxe batzuetan komun lehorrak egoten ziren.

18. Umeen zizareak eta medikutarako eskubiderik eza

- **Erref:** AZA-001/024
- **Iraupena:** 0:03:30. **Hasi:** 00:50:17. **Bukatu:** 00:53:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna

Laburpena:

Umeek hesteetako zizareak izaten zituzten. Orduan euli asko izaten zelako izan zitekeela uste zuten. Maribelen etxean bazuten zatzarendako lastategia baina etxe askotan ikuluan egoten zen. Ez zuten medikutarako eskubiderik baina ez ziren asko gaixotzen ere.

19. Linuzko izarak eta artilezko mantak

- **Erref:** AZA-001/025
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 00:53:47. **Bukatu:** 00:57:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Garbitasun pertsonala
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

Arropa astean behin garbitzen zuten. Baserri askotan ez zeukaten urik eta hankak ere gutxiago garbitzen zituzten. Izarak linuzko ehunezkoak izaten ziren. Ume askok ohe bakarrean lo egiten zuten. Mantak zelakoak izaten ziren eta zela garbitzen zituzten azaltzen du.

20. Kapaxekin egindako koltxoak non izaten ziren

- **Erref:** AZA-001/026
- **Iraupena:** 0:02:13. **Hasi:** 00:57:42. **Bukatu:** 00:59:55
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxearen egitura

Laburpena:

Bere etxean ez zituen zurikin edo "kapaxekin" egindako koltxoirik baina ezagutu izan du. Noiz erabiltzen ziren kontatzen du.

21. Errentari eta ugazaben arteko harremana

- **Erref:** AZA-001/027
- **Iraupena:** 0:03:35. **Hasi:** 00:59:55. **Bukatu:** 01:03:30
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Errentan bizi zirenek ez zuten diru askorik izaten; zekorrek saltzetik ateratzen

zuten dirua bizitzeko. Santo Tomasetako otzarearen edo gabon-otzarearen jatorria azaltzen du: errentariak ugazabari ematen zion. Dirurik ez bazuten, ugazabarentzat lana eginez ordaintzen zuten errenta.

22. Errentariak etxera etortzen zirenekoa

- **Erref:** AZA-001/028
- **Iraupena:** 0:01:19. **Hasi:** 01:03:30. **Bukatu:** 01:04:49
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriaren historia eta kokalekua

Laburpena:

Maribelen familiak bazeukan baserri bat errentan eta gogoan du hango familia noiz etortzen zen.

23. Auzolanerako urdaiazpikoa eta gazta

- **Erref:** AZA-001/029
- **Iraupena:** 0:02:24. **Hasi:** 01:04:49. **Bukatu:** 01:07:13
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Auzokoen arteko harremana
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Auzotarrek elkar laguntzen zuten: garia ebateko, artoa edo babak batzeko... Udako lanetarako urdaiazpikoa, gazta eta horrelakoak gordetzen ziren arto edo gari artean. "Erroldan" joatea zer zen kontatzen du.

24. Kaleko emakumeak baserrira lanera

- **Erref:** AZA-001/030
- **Iraupena:** 0:03:31. **Hasi:** 01:07:13. **Bukatu:** 01:10:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Baserria » Baserriko lanak » Artoa

Laburpena:

Kalean bizi ziren emakume batzuk janariaren truke egiten zuten baserrietan lan. Labean egindako artoa gosaltzen zen. Anekdota bat kontatzen du.

25. Arto-opila eta tremesa

- **Erref:** AZA-001/031
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 01:10:44. **Bukatu:** 01:12:42
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Garia

- Baserria » Baserriko lanak » Artoa
- Ohiturak eta bizimodua » Elikadura » Jatekoa eta edatekoa
- Euskara » Lexikoa

Laburpena:

Artoz egindako opila zelakoa zen eta zela egiten zuten kontatzen du. Labearen barrenean sartzen zen eta kanporago ogia. Ogi-mota bi izaten zituzten: irinarekin egindako ogia eta bestea tremesa, zaia zeukana. Opila eta tremesa larunbatean eta igande goizean jaten ziren.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-08-26

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com